


## BALIO PROPOSAMENA

Gaur egun, jende gehienak musika erabiltzen du bere egunerokoan eta oso presente dago gure bizitzan zehar. Askotan entretenitzeko, hau da, kirola egiteko, etxeko lanak egiteko, kotxean ibiltzeko, paseatzera ateratzeko... musika behar dugu. Izan daiteke, batzuetan arazoak izatea, erosotasun falta dela eta, ez dagoelako gure gustuko musika, bolumen baxua dagoelako, euriarekin ezin delako musika entzun... Horregatik guk eskaintzen dugun produktua aurikular inalanbriko batzuk dira musika barneratuta dutenak. Hauekin, ez da mugikorra gainean eman beharrik, horrela, kirola lasai eta kezkatu gabe egin daiteke. Horregatik, produktua oso eroso da, gainera, arinak eta bolumen altukoak dira.

Aurikularrak akoltxatuak dira, erosoak izateko eta lurrera erortzen badira ez puskatzeko, belarrira ondo egokitzen dira belarrarian minik ez egiteko. Hauek, insonorizatuak daude, horrela kanpoko soinua ez da entzungo eta musikan soilik murgiltzeko aukera egongo da. Uretan sar daitezke, hau da, oso erresistenteak dira, 10 metro sar daitezke uretan eta 1h eta 30 minutuz, hau izango litzateke gomendagarriena. Hauek jantzita igeri egin daiteke, baina ez da gauza erosoena. Gainera, hautsaren kontrakoak ere badira; hortaz, hautsa dagoen toki batean utzita ez du matxurarik izango.

Lignina, polimero fenoliko bat da eta monomero eta lotura desberdinek osatzen dute. Material hau erabiliko dugu ingurumena babesteko helburuarekin eta horrela plastiko gutxiago erabiltzen dugu, lignina, urarekiko eta hautsarekiko erresistentea da eta horrela euria egiten duen egunean eta kalera aurikularrekin joan nahi dugunean ez dira izorratzen.



Produktuaren iraupenari dagokionez, erabilera egokia emanda 2-10 urte bitartez iraun dezakete eta lehenengo bi urteak garantiaren barruan daude. Bateriari dagokionez, 16 orduz erabil daitezke eta kargatzeko euskarri bat dute. Aurikularrak euskarri batean egongo dira kargatzeko orduan. Euskarri hori, entxufatua egon behar du eta honekin batera kargadore bat dator. Kargadorea hautsiz gero, aparteko kargadoreak salduko ditugu.

Kirola egiterako garaian, jendeak eroso ibiltzeari garrantzia handia ematen dio. Horietako askok gustoko dutenez musika entzutea kirola egiten duten bitartean, eskaintzen dugun produktuaren ohiko pisua murriztu dugu. Oso arinak dira, 25g bakarrik pisatzen dute, eta hori lortzeko, tamaina txikiko teknologia erabili dugu produktuaren funtzionamendurako. Horrela, bezeroak ez du aurikularraren pisua nabarmentzen.

Bolumen aldetik, bakoitzak bere aurikularrak nahi duen bolumenera erregulatu dezake eta oso errex egin daiteke. Bolumena, aplikazio bidez edo aurikularraren eskuinean ruleta moduko bat egongo da eta horrekin erregulatzeko aukera egongo da.

Kargatzeko eta musika aurikularretara pasatzeko kable bakarra erabiliko da, kargatzeko orduan adaptadore bat jarri eta musika pasatzeko orduan hori kendu beharko da. Kablea eta euskarria oso txikiak dira eta ez dute leku asko okupatzen bidai batera eraman nahi badira aurikularrak.

Aurikularren helburua, bertan zure playlista egitea da. Horretarako, lehen esandako kablea ordenagailuan konektatzen da eta aukerazko aplikazioarekin egin daiteke playlista. Musika hori, aurikularretan deskargatzen da eta nahi denean entzun daiteke.

Aurikularraren erabileraren arabera, hainbat GB dauzkazu, kirola egiten duten pertsonak musika gehiago erabiliko dute eta horientzat almagaznamendu altuena gomendatzen da, etxeko lanak egiteko erabiltzen bada almagaznamendu minimoarekin nahikoa izango litzateke eta egunerokoan denbora gutxian zehar erabiliz gero eta musika oso desberdinak entzuten badira, erdiko kapazitatea gomendatzen dugu. Horregatik, almagaznamendu desberdinetako aurikularrak daude; 4 GB-koa, 8 GB-koa eta 16 GB-koa. Geroz eta almagaznamendu gehiago izan, prezioa igo egiten da. Garestiak dira, baina balio duena merezi du.

Kolore aldetik, nagusiki hiru kolore hartuko ditugu kontuan eta hurrengoak dira: beltza, oso konbinagarriak dira eta haien iluntasunak serietatea eta garrantzia ematen dio gainean eramango dituen pertsonari. Hurrengo kolorea, zuria da, kolore honek lasaitasuna eta bakea ematen dio pertsonari. Azkenik, kolore gorria dugu, kolore liluragarri honek pasioa ematen dio soinean eramango dituen pertsonari. Aurrerago, eskaintza handia dagoela ikusten badugu, aurikular pertsonalizatuak egiten hasteko asmoa dugu, honek kolore nahasketa ezberdinak egiteko aukera ematen du.

Aurikularren erabilera oso erraza da, aurikularrak pizteko buruan jarrita nahikoa da, eta itzaltzeko toke luze bat emaneg egiten da. Bolumenaren aldetik, eskubiko aldeko borobilak buelta ematen du, aurrera giratuta bolumena igo egiten da eta atzera giratuta bolumena jeitsi egingo da. Kantak aldatzeko bi toke ematearekin nahikoa da.